

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa

Albisteak


Gizonezko gipuzkoarrak dira nagusi EKT ikastaroko ikasleen artean

2009/01/26

Ikastaroaren demografia erabat aldatu da ikastaroaren lehen ediziotik bigarrenera, ikasleei dagokienez. Kopuru abtsolutuetan, **iaz 59 ikasle** izan genituen, eta **aurten 33**, hau da, 26 ikasle gutxiago. Hala ere, kontuan izanda aditu titulu bat dela, 33 kopuru ona da, seguruenik errealistagoa iazkoa baino. Hala ere, hor ez dira amaitzen desberdintasunak.

Generoa eta lurraldetasuna

Generoari dagokionez, aldaketa handia gertatu da bi edizioen artean. Iazkoan emakumezkoak izan ziren ikasleen erdia baino gehiago %56. Aurten, berriz, %28 baino ez dira, hau da, iazkoaren erdia, ehunekoetan.



Lurraldetasunari dagokionez, ostera, **gipuzkoarrek hartu dute iaz bizkaitarrek zuten pisua**, aurten eurak baitira erdia baino apur bat gehiago: %51. Hala ere, bizkaitarrek presentzia handiagoa dute iaz gipuzkoarrek izan zutena baino: %40. Araba apur bat jaitsi da, puntu bat, baina Nafarroa eta Iparraldea erabat desagertu dira gure ikasleen artean.

Datuak 2007-2008 ikasturtean

Generoka	Ikasleak	%
Emakumezkoak	33	56
Gizonezkoak	26	44
Lurraldeka		
Araba	6	10
Bizkaia	30	51
Gipuzkoa	20	34
Nafarroa	2	3
Lapurdi	1	2

Datuak 2008-2009 ikasturtean

Generoka	Ikasleak	%
----------	----------	---

Emakumezkoak	9	28
Gizonezkoak	24	72
Lurraldeka		
Araba	3	9
Bizkaia	13	40
Gipuzkoa	17	51
Nafarroa	--	--
Lapurdi	--	--